

Berrobi

UDALBATZARRERAKO DEIALDIA

Berrobiko Udalak 2016ko martxoaren 16an iluntzeko 20:00etan Udaletxeko Pleno Aretoan egingo duen Ohizko Udal Batzarrera dei egiten dizut.

AZTERGAIAK

- 1) 2015eko azaroaren 23 eta abenduaren 21ko bilkuretako aktak onartzea.
- 2) Alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 3) 2016rako Udal Aurrekontu Orokorra eta Plantila Organikoa onartzeko proposamena.
- 4) Berrobiko baratze ekologikoak adjudikatzeko eta kudeatzeko Araudia hasiera izaeraz onartzea.
- 5) Udalbiltza Partzuergoan sartzeko proposamenaren onarpena.
- 6) Adierazpen Instituzionala : Correscalles-Prekarietatearen aurkako korrika.
- 7) Galde-erreguak.

Berrobi, 2016ko martxoak 8
ALKATEAK
Izp.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika

CONVOCATORIA PARA EL PLENO


Convocatoria para la Sesión Ordinaria del Ayuntamiento de Berrobi, que se celebrará en esta Casa Consistorial el día 16 de marzo de 2016 a las 20:00 horas.

ORDEN DEL DIA

- 1) Aprobación de actas de las sesiones plenarias de 23 de noviembre y 21 de diciembre de 2015.
- 2) Dar cuenta de los Decretos emitidos por la Alcaldía.
- 3) Propuesta de aprobación del Presupuesto Propio municipal para el ejercicio 2.016 así como la Plantilla Orgánica del Ayuntamiento.
- 4) Aprobación inicial del Reglamento para la adjudicación y gestión de las Huertas Ecológicas de Berrobi.
- 5) Propuesta de adhesión al Partzuergo Udalbiltza.
- 6.- Manifiesto institucional : Correscalles-Korrika contra la precariedad.
- 7) Ruegos y preguntas.

Berrobi, a 8 de marzo de 2016
EL ALCALDE
Fdo.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika





Berrobi

UDALBATZARRAREN AKTA

Data: 2016ko martxoak 16

Hasierako ordua: 20:00

Amaiera ordua: 21:55

Lekua: Berrobiko udaletxeko Batzar-aretoa.

Bertaratuak:

Joseba Iñigo Aiertza Mujika, Alkatea
Jose Odriozabala Garmendia, zinegotzia
Erlantz Allur Aramburu, zinegotzia
Igone Saldias Uranga, zinegotzia

Ana Larrarte Kerejeta, idazkaria.

Alkateak bilerari hasiera eman eta gai-zerrendako puntuei heltzen die.
Esan-eginak eta erabakiak


1) 2015ko AZAROAREN 23 eta ABENDUAREN 21ko BATZARRETAKO AKTAK ONARTZEA.

Idazkariak laburtuz puntuz puntu irakurtzen ditu 2015ko azaroaren 23 eta abenduaren 21ko Udalbatzarretako aktak. Alkateak bertaratuei galdetu die aktekiko eragozpenik ba ote duten eta ezezkoa erantzun ondoren, bertaratuek ahobatez 2015ko azaroaren 23 eta abenduaren 21ko aktak onartzen dituzte.

2) ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIAK JAKINARAZI ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Dekretuaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetzak 2015ko azaroaren 26tik 2016ko martxoaren 8ra bitartean (2015/97-2016/16) egin dituen dekretuennberri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.



Berrobi

3) 2016rako UDAL AURREKONTU OROKORRA ETA PLANTILA ORGANIKOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Korporazioko Lehendakariak aurkeztu du 2016ko Aurrekontu Orokorra, dagokion Betearazteko Udal-araua erantsita duelarik, behar den bezala informatuta. Udalaren berezko aurrekontua da soilik, eta haserako defizitik gabe. Baita aurkezten du plantila organikoa eta lanpostu zerrenda.


Kontuan izanda aipatu Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera osatu dela, Udalbatzak aho batez, ondorengo

ERABAKI DU

Lehen.- Berrobiko Udalaren 2016 urteko Aurrekontu Orokorra behin-behinean onartzea. Udalaren berezko aurrekontua da soilik. Gastu eta sarreren egoera atalka laburtuz gero, honela gelditzen da:

GASTUEN EGOERA **ESTADO DE GASTOS**

<u>KAPITULU</u> <u>A</u> <u>CAPITULO</u>	<u>IZENA</u> <u>DENOMINACION</u>	<u>EUROAK</u> <u>EUROS</u>
1	PERTSONAL GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	201.900,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZEBITZUETAN GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS	162.054,59
3	FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS	2,549,40
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	55.072,00
6	INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	165.780,58
9	FINANTZA PASIBOAK PASIVOS FINANCIEROS	42.882,12
	GUZTIRA..... TOTAL	630.238,69



Berrobi

SARREREN EGOERA
ESTADO DE INGRESOS


KAPITULU A CAPITULO	IZENA DENOMINACION	EUROAK EUROS
1	ZUZENEKO ZERGA IMPUESTOS DIRECTOS	70.841,82
2	ZEHARKAKO ZERGA IMPUESTOS INDIRECTOS	10.000,00
3	TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS	24.515,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	439.563,00
5	ONDAREZKO SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES	3.855,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	81.463,87
	GUZTIRA..... TOTAL.....	630.238,69

Bigarren.- Aurrekontuarekin batera 2016ko jardura ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udalaraua onartu da.

Hirugarren.- 2016ko Plantilla Organikoa onartzea, ondoren adierazten diren xehetasunekin:

<i>Lanpostua</i>	<i>Saila</i>	<i>Izaera</i>	<i>Eskala</i>	<i>Taldea</i>	<i>Maila</i>	<i>Lansailoa</i>	<i>H.E</i>	<i>Lanp. kopurua</i>	<i>Der.data</i>	<i>Tit *</i>
Idazkari-Kontuhart.	I-K	F	G.N.	A	19	%50	4	1	1998.12.31	Z/E/S Liz.
Adm. Lagunt.	Adm. Orok.	F		D	10	%71,42	3	1	1998.12.31	G.E
Gizarte langilea	Adm. Berezia	F		B	13	%28,57	3	1	1998.12.31	LSD
Udal Zerag. Ofiziala	Adm. Berezia	L		D	10	%100	1	1	2008.10.29	E.Z. +B1
Liburuzaina	Adm. Berezia	L		D	7	%20	3	1	1998.12.31	G.B.
Garbitzailea	Adm. Berezia	L		E	5	%50	1	2	2010.12.31	E.Z.

Laugarren.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, hamabost egun eraginkorrez, erreklamazioak egin ahal izateko. Aurrekontua eta plantila organikoa erabat onartutzat joko du udalak, aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.



Berrobi

Bosgarren.- Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko du udalak Gipuzkoako Foru Aldundira eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da atalka laburtua.

Seigarren.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurreikusitako eran argitaratua izan ondoren. Gainera, aurrekontuaren kopia bat eta bere aldaketak jendearen eskura egongo dira informazioa izan dezaten, behin betiko onartzen den unetik jarduera bukatu arte.

4) BERROBIKO BARATZE EKOLOGIKOAK ADJUDIKATZEKO ETA KUDEATZEKO ARAUDIA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEA.

Aipaturiko araudia behar adina landu gabe dagoenez gaia mahai gainean geratzen da.

5) UDALBILTZA PARTZUERGOAN SARTZEKO PROPOSAMENAREN ONARPENA.

Alkateak gaia aurkeztu eta Udalbiltza Partzuergoan sartzeko proposamena zein den azaldu du.

Ikusirik Euskal Herriko udalerrien arteko Harremanak sendotu eta interés komunak elkar bultzatzeko "Udalbiltza Partzuergoa" izenez eraturiko entitate publikoari buruzko espedientea.

Alkateak proposamena bozketara eraman du eta bertaraturiko lau zinegotzien aldeko botukin, Udaltzarreko gehiengo osoa osatzen duten zinegotziek honakoa erabaki dute:

Lehenik: Berrobiko Udala "Udalbiltza Partzuergoa" eta bere estatutuekin bat dator eta bertan sartzeko eskaera luzatzen dio Partzuergo horren kontseilu Nagusiari. Partzuergoaren eraketa akta zein estatutuak erabaki honi erantzen zaizkio (I.eraskina).


Bigarrenik : 2.000 euro ekarpen gisa onartzea Partzuergoaren eraketa gastuak zein harturiko konpromisoak bilduko dituen.

Hirugarrenik : Urtero dagokion kuotaren ordainketa egitea.

6.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA : CORRESCALLES- PREKARIETATEAREN AURKAKO KORRIKA.

Alkateak honako Adierazpen Instituzionala aurkezten du bere onarpenerako

"CORRESCALES – Prekarietatearen aurkako korrika, Moviestarrentzat lan egiten duten teknikoen aldarrikapenekin elkartasunez.



Berrobi

ARRAZOIKETA:

Uda aurretik Movistarrentzat lan egiten zuten tekniko, autonomo eta azpikontratatuak 75 eta 85 egun bitarteko greba egin zuten. Hasieran greba horrek tokian toki emaitza desberdinak izan bazituen ere, Movistarreko langileek Marea Urdina delakoaren baitan duintasun materialaren eta bizi baldintza duinen aldeko borroka bati heldu zioten. Egun langileak borrokan ari dira eta borroka horren gaur gaurko nolakotasun eta helburuak hurrengoak dira:

- *Bizitza duinaren eta lan baldintza duinen aldeko borroka erroan dituen arrazoiak ikusarazi eta lan prekarietateari aurre egin.*
- *Eremu publiko, laboral zein sozialean indarrean den prekarietatearen aurkako borroka hau hauspotzea.*
- *Correscales, "Prekarietatearen aurkako Korrika" bezala izendatutako ekimenaren parte egin nahi ditugu elkarte, herri mugimendu, eragile zein norbanakoak.*


Correscales, "Prekarietatearen aurkako Korrika", Otsailaren 17an abiatuko da Bilbotik. Ibilbidean zehar 70 korrikalarik hartuko dute lekukoa eta 700 kilometro osatuta, Otsailaren 21ean iritsiko da Bartzelonara. Ibilbidean zehar duintasunaren aldeko dokumental bat grabatuko da eta bertan kapitala metatzeko eskubidearen ondorioz beste askok bizi behar dugun egunerokotasun prekario emozional eta materiala jasoko da.

Guzti honen helburua oinarrizko lan eskubideen alde lan egiten duten kolektiboentzako elkartasunezko funts kooperatibo bat osatzea da. Hala, gure bizitzen gain erabakiak hartzen dituztenei aurre egiteko bitarteko bat sortuko da eta helburu hau posible egiteko 70.000 herritar eta elkarteren parte hartzea bilatzen duen aurrekaririk gabeko Crowdfunding dinamika jarri da abian.

Movistarreko langileek abiatutako ekimen hau herri, auzo eta hiri mailako elkarte, eragile eta herritar askoren babesa jasotzen ari da, herrien arteko elkartasuna herri horietako langileen arteko elkartasuna dela ulertzen duten elkarte, eragile eta herritarren babesa.

Gure eskualdeei dagokionez, Correscales "Prekarietatearen aurkako Korrika"-rekiko elkartasun taldeak hainbat kultura elkarte, gizarte eragile, sindikatu eta mugimendu politiko barnebiltzen ditu eta Marea Urdinak egindako deiari hainbat ekimen eta mobilizazioekin erantzun zaio.

- *Hala, testuinguru honetan, Marea Urdinaren arrazoiak eta nolakotasunak aztertuta, gure udaletxeak instituzio moduan, duintasunaren aldeko borroka hau babestea ekarpen garrantzitsu eta positiboa litzateke dudarik gabe. Horregatik, Osoko Bilkurak mozio hau onartzea proposatzen dugu, Correscales "Prekarietatearen aurkako Korrika" ekimenaren arrazoiaren duintasunagatik, marea urdinaren tamainagatik eta batez ere langileon arteko oinarrizko elkartasunagatik."*



Berrobi

Aurrez azaldutakoa eta gero, Udalbatzak ahobatez honakoa onartzen du

Lehen.- Berrobiko Udala Correscales, Prekariotatearen aurkako Korrikari babes adierazten dio.

Bigarren.- Berrobiko Udala lan munduko kontratu eta konkurtso publikoetako klausula sozialak indartzeko eta hauen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du.

7) GALDE-ERREGUAK.

Ez dago galde-erregurik.

Eta, aztertzeke bestelako gairik ezean, Udalbatza amaitutzat eman da, eta jorratutako gaiak eta hartutako erabakiak aktan jaso daitezen, nik, idazkariak, agiri hau luzatu dut alkatearen oniritziarekin.

O. E.
ALKATEA



IDAZKARIA

